

ZIRKINIK BEZ! // ERROMERIA

2009. urtetik oholtza ganean ibili den taldea da Zirkinik Bez! erromeria taldea. Aurton, indarrak berrituta ez ezik, kide berriekin dator. Beti finko egon diren Gitarra, Baxu, Bateria, Trikitixa eta Ahotsari, Tronpeta eta Tronboia gehitu zaizkio.

Zazpikote berriak betiko euskal doinu eta dantzak jotzeaz gain, pil-pilean dauden soinuak ere ekarriko ditu eszenatokietara, Gatibu, Huntza, ETS eta beste hainbat talde ez dira faltako erreperitorioan.

10 urte luzetan gutxi izango dira taldeak dantzan ipini ez dituen plazak eta aurton zerrenda luzeagoa bihurtzeaz gain plazak berriz bisitatzeko prest dator!

